

Lanbide heziketako ikasleentzako **laneko arriskuen prebentzioari** buruzko gida didaktikoa, proiektuetan oinarrituriko elkarlaneko ikaskuntzan oinarritua [poei]

**ZURE BURUA ZAINTZEN DUZU
ETA ZAINTZEN ZAITUZTE?**

Elkarlanean gauzaturiko ekimena - Egileak
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. Nafarroako
Gobernuko Osasun Departamentua.
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
2017-2018 edizioko HAZI ARTE proiektuko
"To rent or not to rent" ikuskizunean oinarritua.

Gauzatze teknikoa

Natalia Ayesa Guerrero
Xabier Arrozpide Etxeberría
Javier Cañada Zarranz
José Luis García Hernández
Miguel Angel González Moreno
Olga Lucio Malmonge

Esker onak

Barañaingo Auditorioa
Iruñeko Arte Eskola
Uharte BHI
Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizateko Institutu Nazionala (LSOOIN)
Praktiketan ari diren gazteak, Barañaingo Auditorioan
Loli Gimeno
Sara Ruiz Huelva (NOPLOI)

ISBN 978-84-09-09570-4

EDUKIA

1. SARRERA	03
1.1. Testuingurua	06
1.2. Legegintza-esparrua	06
1.2.1. Hezkuntza-erreferentziak	
1.2.2. Lan-osasunaren erreferentziak	
1.3. Aplikazio-Esparrua Eta Ikasleen Profila	08
1.4. Unitatearen ikuspuntua	08
2. ORIENTAZIO METODOLOGIKOAK	09
3. GIDA DIDAKTIKOA	10
3.1. Galdera gidaria – ikasteko sarbidea	10
3.2. Azken produktua: lap-ekiko sentsibilizatzeko sormenezko produktua	10
3.3. Gida didaktiko honek barne hartzen dituen gaitasun profesionalak	10
3.4. Ikaskuntzaren emaitzak eta edukia	11
3.5. Sekuentziazioa eta tenporalizazioa	12
3.6. Taldeak eta zereginak	13
3.7. Taldeko arauak	13
3.8. Ikaskuntza-egunkaria	13
3.9. Taldearen koadernoak	14
3.10. Faseak eta lan-sortak	14
3.11. Prozesuaren eta emaitzaren ebaluazioa	17
4. HEZKUNTZA-PLANA	18
5. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA	21
5.1. Ebaluatzeko prozedura	21
5.2. Ebaluatzeko tresnak	21
5.3. Kalifikazio-sistema	22
6. ERANSKINAK	23
6.1. Ebaluazio-agiriak	23
6.2. Ikus-entzuzeko materiala	23
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	24

1.

SARRERA

Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseilu berriak 2017ko ekainaren 13an egin zuen eta Hezkuntzako kontseilaria buru izan zuen saioan, **Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa** zehazten duten oinarriak azaldu zituzten. Kontseiluak LHko zenbait tituluren egitura ezartzen duten foru-dekretuak onartu ditu, eta, hartara, erregimen bereziko ikasketa artistikoei bultzada garrantzitsua eman die.

Kontseiluaren lehen bilera horretan, nabarmendu zuten LHk hauen alde egiten duela:

- Prestakuntza hobeto koordinatzea eta eguneratzea, teknika berriak erabiliz.
- Prestakuntza hobetzea eta, horretarako, ikastetxeetan eskura ez dituzten instalazio eta ekipotarako sarbidea erraztea.
- Lan-jardueraren berezko balio pertsonal eta sozialetan trebatzea sustatzea

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) sustaturiko **Lan Osasunaren Ekintza Planak** (2017-2020) dio laneko arriskuen prebentzioaren (LAP) berri herritar guztiei eman behar zaiela, bereziki ikasleei eta gazte langabeei. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Espainiako Estrategiaren (LSOEE, 2015-2020) arabera, hezkuntzan eta prestakuntzan (2. helburua) funtsezkoa da "Prestakuntza Plan Nazionalan jasotako neurriak bultzatzea (besteak beste lanbide-heziketan eta lanerako prestakuntzan), ikastetxeetan sentsibilizazio-programak ezartzea eta prebentzioa zeharka lantzea".

Jarduketa-esparru horren barnean, NOPLOIk proposatu zuen lehen sentsibilizazio-ekintza batean parte hartzea 2017-2018 ikasturterako, Barañaingo Auditorioa Fundazioaren Hazi Arte proiektuaren bidez laneko arriskuen prebentzioaren eta laneko osasunaren garrantzia nabarmenduta.

Hezkuntza, Osasun eta Enplegu departamentuek, Barañaingo Auditorioarekin batera, *"lan-arriskuen arloko sentsibilizazio proiektua lh-ko ikasleentzat eta langabeentzat - hazi arte 2017/2018"* izenekoan parte hartu zuten.

Barañaingo Auditorioa Fundazioak Hazi Arte proiektuaren zenbait edizio garatu ditu, eta, horrenbestez, eskarmentua du eta bai arte-arloko irakasleak ere. Aipatutako departamentuok irakasle horiekin lan egiteko aukera izan dugu, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko sentsibilizazioa jorrazteko.

2017ko urria eta abendua bitarteko hiruhilekoan, zazpi ikastetxetan (oinarrizko lanbide-heziketa eta lanbide-lantegiak) hautaturiko ikasleek entzunareto lan-saioetan parte hartu zuten eta bost diziplina landu zituzten: dantza, rapa, antzerkia, hip-hop eta ahotsa. Lana amaitzeko, ikasleek, arte-ikasleen laguntzarekin, musikal bat diseinatu eta grabatu zuten. Horrez gain, musikalaren parte bat zuzenean interpretatu zuten Barañaingo Auditorioan, 2017ko abenduaren 12an, bi saiotan. Musikalaren izenburua "To rent or not to rent" zen.

Aldi berean, eta saioak egin bitartean, ikasleen artean egiteko elkarrizketak planteatu ziren, grabatuak. Hain zuzen, programako gaiei buruzko galderak planteatu zizkieten elkarri: laneko arriskuak, balioak, genero-nortasuna eta abar.

Aztertzeko eta eztabaidatzeko gaiak:

- Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioan.
- Parte hartzen duten erakundeak eta beren erantzukizunak.
- Ordezkarriak eta parte-hartzea.

1.1. TESTUINGURUA

Estatistiken arabera, 18 eta 24 urte arteko gazteek lan-istripu larriak izateko arrisku gehiago dute. Gerta daiteke kondizio desagokietan lan egitea eta, ondorioz, gaztetan edo aurrerago laneko gaixotasunak izatea^[1].

Lanean hasi berriak direnez, gazteek ez dute esperientziarik eta, batzuetan, ezta heldutasun fisiko eta psikologiko nahikorik ere. Ondorioz, beharbada ez dituzte laneko arriskuak aintzat hartzen. Hauek dira gazteak arriskuan jartzen dituzten faktoreetako batzuk:

- Prestakuntza nahikoa ez izatea.
- Enpresaburuek ez aintzatestea langile gazteek babes gehiago behar dutela.
- Nagusiek zer betebeharrak dituzten eta norberak zer eskubide dituen ez jakitea.
- Sortzen diren arazoez hitz egiteko konfiantza nahikoa ez izatea.



[1] Iturria: <https://osha.europa.eu/es/themes/young-workers>

Lau urtean (2013-2016) estatuan izan den ezbehar-kopurua adinaren eta sexuaren arabera aztertu eta ondorio hauek atera ditugu:

- 16 eta 19 urte arteko gazteen ezbehar-kopurua langileen batez besteko ezbehar-kopurua baino % 43 handiagoa da.
- 20 eta 24 urte arteko gazteen ezbehar-kopurua langileen batez besteko ezbehar-kopurua baino % 15 handiagoa da.

Bi multzoetan, gizonen ezbehar-kopurua emakumeenaren halako bi da.

Sexuaren arabera:

- Varones de 16-19 años se accidentan un 40% más que la media de todos los varones
- Mujeres de 16-19 años se accidentan un 31% más que la media de todas las mujeres

1.2. LEGEGINTZA-ESPARRUA

Gida didaktiko hau lanerako prestakuntza eta orientabideen lanbide-moduluan dago kokatuta; izan ere, lanbide-heziketan, lan-osasunarekin eta laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten eduki gehienak modulu espezifiko horretan ematen dira.

Modulu horri bi arlotako legeria banak eragiten diote: hezkuntzako legeriak eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeriak. Hala estatuan nola autonomia-erkidegoan. Hona hemen lurralde bakoitzeko arau nagusiak.

1.2.1. KUNTZA-ERREFERENTZIAK

A- Estatuko arau nagusiak

- 1978ko Espainiako Konstituzioa, hezkuntzarako eskubideari dagokionez (27. artikulua).
- 8/2013 Lege Organiko berria, hezkuntzaren kalitatea hobetzeari buruzkoa; eta Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa, zeinak LHko heziketa-ziklo gehienak arautzen dituen gaur egun.
- 5/2002 Lege Organikoa, lanbide-trebakuntza eta -heziketari buruzkoa.
- 1147/2011 Errege Dekretua, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena. Tituluen egitura zehazten du, Lanbide Trebakuntzaren Katalogo Nazionala oinarritzat hartuta.

- LHko titulu bakoitzerako errege-dekretu bat ezartzen da, gutxieneko ikasketen egitura finkatzen duena Estatuan. Errege-dekretu horietan, larrerako prestakuntzaren eta orientabidearen modulu profesionalaren erreferentzia ageri da beti, beren ikaskuntza-emaitzekin eta ebaluazio-irizpideekin, iraupenarekin eta oinarrizko edukiekin, non laneko osasunarekin lotutako hiru atal ageri diren: laneko arriskuen ebaluazioa; arriskuen prebentzioaren plangintza enpresan; eta prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea enpresan. Araudi horren adibide bat hau litzateke: “1584/2011 Errege Dekretua, azaroaren 4koa, Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Teknikariaren Titulua ezartzen duena eta gutxieneko ikasketak finkatzen dituena”.

B.- Nafarroako Foru Komunitateko arau nagusiak

Lanerako prestakuntza eta orientabideen (LPO) lanbide-modulua Nafarroak hezkuntzan dituen eskumenen bitartez eta LHko tituluak lantzen dituzten foru-dekretuez aparte zehaztu da. Azken foru-dekretuen arabera, modulua zikloen bigarren mailatan zegoen (ikasturtean 70 ordu, astean lau eskola-ordu), eta gaur egungo dekretuak LHko heziketa-zikloen lehen mailatan kokatu du berriz (ikasturtean 100 ordu, astean hiru eskola-ordu).

- 54/2008 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sisteman lanbide-heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituena.
- LHko titulu bakoitzaren foru-dekretu baten bidez garatzen da, haren curriculum deskribatzen duena. Adibidez, “52/2010 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan Administrazio Kudeaketako Teknikari tituluaren egitura eta curriculum ezartzen duena”.
- 115/2014 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikora egokituriko LHko titulu jakin batzuen egitura eta curriculum ezartzen dituzten foru-dekretuak aldatzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
- 27/2017 Foru Agindua, martxoaren 6koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean argitaraturiko lanbide-heziketako erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloko ikasleek laneko arriskuen prebentzioan jasotako oinarrizko prestakuntza egiaztatzeko prozedura arautzen duena Nafarroako Foru Komunitatean.
- Xxx/2018 Foru Dekretua, xxxxxxxxaren xxkoa. Haren bidez, Hezkuntzako Lege Organikora egokitutako lanbide-heziketako goi-mailako teknikariaren eta teknikariaren zenbait tituluren egitura eta curriculum ezartzen dituzten foru-dekretuak aldatzen dira, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan.

1.2.2. LAN-OSASUNAREN ERREFERENTZIAK

Estatuan:

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.

Europar:

- Kontseiluaren 89/391/EE Zuzentaraua, 1989ko ekainaren 12koa, lantokian langileen segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa (Esparru Zuzentaraua).
- Kontseiluaren 94/33/EE Zuzentaraua, 1994ko ekainaren 22koa, lantokian gazteak babesteari buruzkoa.

1.3. APLIKAZIO-ESPARRUA ETA IKASLEEN PROFILA

Gida didaktiko hau hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako maila guztietan erabiltzeko dago egina: erdi-mailako heziketa-zikloak, goi-mailako heziketa-zikloak eta 1. mailako trebakuntzako lanbide-heziketa. Horiek horrela, oinarrizko LHko titulu askok lanerako prestakuntza eta orientabideen modulukoaren pareko prestakuntza dute. Zehazki, oinarrizko lanbide-heziketaren gai espezifikoak arautzen dituen 127/2014 Errege Dekretuak, 11. artikuluan, zeharkako gaitasun eta edukiak aipatzen ditu, eta hau dio: “Oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-ziklo guztiek gai hauek zeharka landuko dituzte zikloko lanbide-moduluetan: talde-lana, laneko arriskuen prebentzioa, ekintzaitza, enpresa-jarduera eta ikasleen lanerako orientabidea. Eta horiek zehazteko erreferentetzat hartuko dituzte oinarrizko hezkuntzako gaiak, batetik; eta tituluaren lanbide-profilaren eta errealitate produktiboaren betekizunak, bestetik”.

1.4. UNITATEAREN IKUSPUNTUA

Egungo egoerak eta aurrerabide teknologikoen iraultza ekarri dute hezkuntzara. Prestakuntza giltzarria da oraindik ezagutu eta aurkitzeko dauden norabide berrietarantz bilakaera izaten ari den garapen baterako.

Kontzientzia sozial berria eta baliabide digital berrien hasieran sortutako kontzepzio globala helaraztea erabateko erronka da, ezin konta ahala aukeratan gauzatua, izugarriko abiaduran berrasmatzen den ekoizpen-ikaskuntza baterako.

Aktiboagoa eta malguagoa den metodologia bat erabiltzea sustatu eta barnean hartzeko diseinatu da gida didaktiko hau. Xedea da **Proiektuetan Oinarrizko Elkarlaneko Ikaskuntza (POEI)** sustatzea, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan eredu metodologikoa aldatzeko elementu gisa, ikasleengan arreta jarrita eta dibertsitatara egokituta.

Ikasten ikasteko gaitasuna bultzatzen da, erronkei irtenbidea ematekoa, arazoei, ikerketaren, elkarlanaren eta aurkitu eta ezagutzearen bidez. Azken batean, planteatu eta konpontzeko ohitura hartu behar dute ikasleek, ikasteko modu gisa.

Ikasketak amaitzen, ikasleek zain duten errealitate sozial, intelektual eta lanekoari aurre egiteko prest egotea lortu behar dugu. Hartara, proiektuetan oinarrizko ikaskuntza batek, elkarlaneko ikaskuntza batek, zeharkako gaitasunak ematen ahal dizkie, gaitasun teknikoek gain.

2.

ORIENTAZIO METODOLOGIKOAK

Gaur egun, Proiektuetan Oinarrituriko Elkarlaneko Ikaskuntzaren (POEI) metodologia irakaskuntza-estilo berri baten aldeko apustua da; estilo horretan, irakaskuntza irekiagoa da, ikasleak dira beren ikaskuntzan protagonista eta jarrera kritikoa sustatzen da. Halaber, ikasleei gaur egun lan-arloan hain garrantzitsuak diren zeharkako gaitasun sozial eta pertsonalak lantzen laguntzen die: komunikatzeko abileziak, berrikuntza, jarrera ekintzailea, talde-lana eta gaitasun digitala.

Irakasleen eta ikasleen zereginak ez dira betikoak. Ikasleek autonomia dute proiektua gauzatzeko behar duten informazioa bilatzeko, egiaztatzeko eta aztertzeko. Aitzitik, irakasleen zeregina ikasleak orientatzea, gidatzea eta laguntzea da, behar denetan informazio-bilaketa hori mugatuz edo bideratuz.

Proiektuetan oinarrituriko elkarlaneko ikaskuntza gauzatzeko tokiek balioaniztunak, atseginak eta moldakorrak izan behar dute. Halaber, IKTak erabiltzea sustatzeko baliabideak eduki behar dituzte, ikasleek elkarlanean informazioa bilatzearekin eta ikertzearekin batera gaitasun digitalak landu ditzaten. Ikasleak lauzpabost laguneko taldetan banatzen dira eta ikasle bakoitzak taldean zeregin berezi bat du. Taldeko funtzionamendu-arauak eta ikasle bakoitzaren zereginak ikasleek berek zehaztu eta idatzi behar dituzte.

Irakasleak hezkuntza- edo lan-plan bat ematen die, non gai hauek zehaztuta dauden: konpondu beharreko erronka, kasu edo problema; faseak eta lan-sortak, aurreikusitako betebeharrak eta jarduerekin; ebaluazio-prozesua, ebaluatzeko tresna eta baliabideekin; lan-plana egiteko IKTko material, baliabide eta tresnak, eta abar.

Ikasleek ikerketa-prozesu handi bat egiten dute, galdera gidari konplexu bati erantzun eta problema edo erronka ebazteko. Horretarako, taldekideek laneko fase eta sortetan zehazturiko lanak banatzen dituzte eta lan horiek egiteko egutegia ezartzen dute.

Jakina, azken emaitza egokia izan dadin, kontu batzuetan irakasleak orientatu eta nolabait kontrolatu behar ditu ikasleak, besteak beste gai hauetan: egiten dituzten galdera eta ikerketak, ematen dituzten erantzunak, informazioa biltzeko erabiltzen dituzten baliabideak eta zereginen banaketa. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea prozesu horretan denek ikasten dutela elkarrekin eta elkarrengandik.

Ikasleek laneko prozesu osoa ikaskuntza-egunkari pertsonal batean eta taldeko txosten edo koaderno batean jaso behar dute. Egunkariak eta txostenak norbera eta taldekideak ebaluatzeko balioko die, eta irakasleak ebaluatzeko tresna gisa erabili ahal izango ditu.

Ezaupide, jarduera eta azken produktu horiek mamitzeko, IKTak eta beste baliabide teknologiko batzuk erabiltzen eta egoki aplikatzen jakin behar dute.

Problema, kasua edo erronka ebatzi ondoren, ezinbestekoa da jendaurrean aurkeztea, partekatzea eta ahalik eta gehiena ezagutzera ematea, eta, horretarako, ekitaldi, lehiaketa edo jardunbide egokien jardunaldi bat antolatzea, web orrian eta gizarte-sareetan argitaratzea eta abar.

3.

GIDA DIDAKTIKOA

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko gida didaktiko honek balio du LHko ikasleek LPO moduluan **Zure burua zaintzen duzu eta zaintzen zaituzte?** proiektua POEI metodologia aktiboaren bitartez lantzeko. Gidako dokumentazio guztia ikasle-irakasleek *Google Drive* bidez elkarrekin lan egin ahal izan dezaten prestatuta dago.

3.1. GALDERA GIDARIA – IKASTEKO SARBIDEA

Galdera gidaria proiektuko ikerketaren abiapuntua da; konponbidera iristen denean amaitzen da, eta konponbide hori azken produktua da.

Gida honek irakasle eta ikastetxe bakoitzaren esku uzten du ikaskuntzarako sarbidea nola landu. Egokiena da galdera gidariak (bat baino gehiago izan daitezke) gai hauek barne hartzea: osasuna, kalteak (gaixotasuna, istripua), lana, zaintza, erantzukizuna eta abar.

Galderak hauek izan daitezke, adibidez:

Zergatik gertatzen dira lanean istripuak? Lanean istripurik izan dezaket? Zer egingo zenuke laneko istripu gutxiago gertatzeko? Zerk eragiten du ...-(e)n laneko istripuak gertatzea? Zer egin dezaket lantokian istripurik ez izateko? Gerta al daiteke ni lanean gaixotzea edo hiltzea, istripuren bat izatea? Lanean, bizitzan bezalaxe, gure burua zaindu beharra daukagu! Laneko osasuna eskubidea ala betebeharra da? Lantokian zaintzen al naute? Zaintzen al dut nire burua?...

3.2. AZKEN PRODUKTUA:

LAP-EKIKO SENTSIBILIZATZEKO SORMENEZKO PRODUKTUA

Azken produktuak ukigarria izan behar du eta galdera gidariari eta ikasleek proiektuan gauzatutako ikerketa-prozesu osoari erantzun behar dio.

LAPi buruzko gida didaktiko honetan pentsatu dugu egokiena dela ikus-entzunezko materiala egitea, zehazki **laneko arriskuen prebentzioaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina** baterako iragarki bat, 60 segundo ingurukoa, zeharkako balioak lantzen dituen

3.3. GIDA DIDAKTIKO HONEK BARNE HARTZEN DITUEN GAITASUN PROFESIONALAK

Gaur egun, **gaitasun profesionalak** lan-merkatuak ezartzen ditu eta etorkizuneko langileak prestatzeko landu behar dira. Gaitasun profesionalak barne hartzen dituzte, batetik, lanbide-arlo bakoitzeko **gaitasun espezifiko** edo teknikoak; eta bestetik, **zeharkako gaitasunak**, alegia gaitasun sozial eta pertsonalak: ahozko eta idatzizko komunikazioa, talde-lana, berrikuntza, jarrera ekintzailea eta gaitasun digitala.

Zure burua zaintzen duzu eta zaintzen zaituzte? proiektuan gaitasun hauek landuko ditugu:

1. Ekoizpen-prozesuetako teknologia- eta antolamendu-aldaketek eragindako lan-egoera berrietara moldatzea eta, horretarako, ezaupideak eguneratzea, bizitza osoan ikasten jarraitzeko dauden baliabideak erabiltzea eta **informazio- eta komunikazio-teknologiez baliatzea.**

2. Nork bere eskumen-esparruan **arduraz eta autonomiaz** jardutea eta, horretarako, egokitutako lana antolatzea eta gauzatzea eta lantokian beste profesional batzuekin **elkarlanean edo talde-lanean** aritzea.
3. Nork bere jarduerako **intzidentziak arduraz konpontzea** eta, horretarako, intzidentzia horiek zerk eragin dituen zehaztea, nork bere eskumen- eta autonomia-esparruan.
4. **Eraginkortasunez komunikatzea** eta lan-eremuan esku hartzen duten pertsonen autonomia eta eskumenak errespetatzea
5. Ekoizpen-prozesuan laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko protokolo eta neurriak aplikatzea, **pertsoneri, lan-eremuari eta ingurumenari kalterik ez egiteko.**
6. Jarduera profesionalaren berezko **eskubideak erabiltzea eta betebeharrak betetzea**, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta, horretarako, bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalean modu aktiboan parte hartzea.

Oro har, orain arte deskribaturiko gaitasunak lanbide-heziketako lanbide-ziklo guztietan lantzeko modukoak dira. Dena den, goi-mailako ikasleentzako eskakizun-mailak handiagoa izan behar du, jakina. Aldea da, funtsean, ikasle horiek besteen lana gainbegiratzeko gaitasunak ere landu behar dituztela.

[GAITASUNEN TAULA. ERDI-MAILAKO ZIKLOA ETA GOI-MAILAKO ZIKLOA]

3.4. IKASKUNTZAREN EMAITZAK ETA EDUKIA

BERTSIOA, BATERAKO TAULA

LPO moduluan zazpi ikaskuntza-emaitez daude. Gida didaktiko honetarako hiru interesatzen zaizkigu, ikaskuntza-emaitezkin lerroan antolatutako eduki jakin batzuekin zerikusia dutenak. Gida honek barne hartzen dituen edukiek "*Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko maila*" prestakuntza-unitatearekin dute zerikusia.


1. **Lan-harremanetatik eratorritako eskubideak erabiltzen eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan** eta hitzarmen kolektiboetan antzemateko gai da.
 - Banakako lan-harremanaren analisia.
 - Lan-harremanetik eratorritako eskubide eta betebeharrak.
 - Langileen ordezkartza.
2. **Jardueraren arriskuak ebaluatzen ditu eta lan-eremuko lan-baldintza eta arrisku-faktoreak aztertzen ditu.**
 - Laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarritzko araudia.
 - Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko eskubide eta betebeharrak.
 - Prebentzioaren kulturak jardueraren fase guztietan duen garrantzia.
 - Lanaren eta osasunaren arteko erlazioaren balorazioa.
 - Arrisku profesionalak. Arrisku-faktoreen analisia.
 - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa.
 - Arrisku-egoeren ondorioz langileen osasuna nola kaltetu daitekeen zehaztea.
3. Enpresa txiki batean arriskuak prebenitzeko plana egiten parte hartzen du eta **esku hartzen duten agente guztien gaitasun eta erantzukizunak zehazten ditu.**
 - Langileen ordezkartza prebentzioaren alorrean.
 - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.
 - Oinarritzko prebentzio- eta babes-neurriak, hala banakakoak nola kolektiboak.

3.5. SEKUENTZIAZIOA ETA TENPORALIZAZIOA

Nafarroako gaur egungo araudiaren arabera, laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailako prestakuntza-unitateari LPO moduluko curriculumean **50 ordu** dagozkio, asteen **55 minutuko hiru eskola**, hain zuzen ere.

PRESTAKUNTZA-UNITATEA	IRAUPENA (ORDUAK)
Laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko maila	50

Gure proposamena da gida didaktiko honetako edukia 15 ordutan lantzea (laneko osasunari dagozkion 50 ordu horien barruan), zehazki 55 minutuko 16 saiotan; guztira bost asteko lana da. Parametro horiek beste autonomia-erkidego batzuetan desberdinak izan daitezke.



Lana eta 16 saio horiek faseka antolatu ditugu, eta jarduerak lan-sortaka. Hauek dira laneko faseak: aurreko fasea, hasierako fasea, garapen-fasea eta azken fasea.

	Eguna/saioa 55min.	Eguna/saioa 55min.	Eguna/saioa 55min.
1. ASTEA	saioa_1 AURREKO FASEA Aurkezpena	saioa_2 HASIERAKO FASEA Informazio-dossierra	saioa_3 HASIERAKO FASEA Informazio-dossierra
2. ASTEA	saioa_4 HASIERAKO FASEA Informazio-dossierra	saioa_5 HASIERAKO FASEA Ezagutza trukea	saioa_6 HASIERAKO FASEA Ezagutza trukea
3. ASTEA	saioa_7 HASIERAKO FASEA Ezagutza trukea	saioa_8 GARAPEN FASEA Ikus-entzunezko gidoia	saioa_9 GARAPEN FASEA Ikus-entzunezko gidoia
4. ASTEA	saioa_10 GARAPEN FASEA Ekoizpena	saioa_11 GARAPEN FASEA Ekoizpena	saioa_12 GARAPEN FASEA Ekoizpena
5. ASTEA	saioa_13 GARAPEN FASEA Ekoizpena	saioa_14 AZKEN FASEA Erakusketa	saioa_15 AZKEN FASEA Erakusketa
6. ASTEA	saioa_16 AZKEN FASEA Ebaluazioa		

3.6. TALDEAK ETA ZEREGINAK

Taldean lan egiteak ikasleei beren ikaskuntzaren ardura hartzen, taldekideekin ikasten, elkarri informazioa ematen eta besteen iritziak entzuteko jarrera egokia izaten laguntzen die. Sortzen diren liskarrak kudeatzen eta konpontzen ikasten ere laguntzen die. Horregatik, lauzpabost laguneko talde txikiak egitea da egokiena.

Proiektuan landuko duten ikus-entzunezko materiala modu orekatuan banatzeko, ikasleak **lau taldetan** banatzea komeni da; taldekide-kopurua ikasgelako ratioaren arabera izango da.

Taldeak eratzerakoan, aintzat hartu behar da heterogeneoak eta orekatuak izan behar dutela. Ikasleek elkar ezagutzen ez badute, ikasturtea hasi berri delako, eta ikasleek zer indargune, abilezia eta abar dituzten ez badakigu, taldeko dinamikak egitea lagungarria izan daiteke.

Taldekideei zeregin bana egokitzea garrantzitsua da, zer lan egin beharko dituzten jakin dezaten. Zereginak banatzeak talde-lana indartu eta finkatuko du eta jarrera menderatzaile edo pasiboa izatea eragozten du. Zeregin desberdinak daude, **ikusitako ereduak**.

3.7. TALDEKO ARAUAK

Taldekideek funtzionamendu-arau positiboak adostea garrantzitsua da, ikaskuntza-prozesua gauzatzeko, erabakiak hartzeko, gatazkak konpontzeko eta lanaren ardura hartzeko, besteak beste, lagungarriak izan daitezten.

Adostutako agiri horretan zer konpromiso hartu dituzten eta taldekide bakoitzak zer lan egingo dituen jaso behar dute. Arauak ez betez gero zer egingo duten ere idatzi behar dute.

Ikasleek arauak jartzen parte hartzen badute, gero motibazio handiagoarekin lan egiten dute. Arau gutxi batzuk baino ez dira jarri behar, eta funtsezkoa da modu positiboan adieraztea, betetzeko modukoak, argiak eta zehatzak izan daitezten. Gainera, proiektuak irauten duen bitartean edonoiz berraztertuta eta alda daitezke.

Ikasleek egindako materialetik eratorritako irudien gaineko eskubideak:

Ikasleek proiektuan sortzen diren irudi, grabazio eta gainerako materialetan agertzen diren pertsonen eskubideak zaintzeko konpromisoa hartu behar dute, eta heziketa-helburuekin baino ez dituzte zabaldu behar.

Alde horretatik, proiektuan sortzen diren irudi, grabazio eta gainerako materialetan agertzen diren pertsonen baimena eman behar dute (*4. eranskina*), irudi, grabazio eta material horiek edozein euskarritan erreproduzitu, zabaldu eta argitaratu ahal izateko.

Nork bere irudia izateko eskubidea funtsezkoa da eta *maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan dago arautua; lege hori ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzkoa da.*

3.8. IKASKUNTZA-EGUNKARIA

Ikaskuntza-egunkaria (*ikusitako 5. eranskina*) ikasleek ikaskuntza-prozesuko esperientziak idatziz jasotzeko erabiliko duten dokumentu pertsonal bat da. Ikaskuntza-egunkaria idazteak ikasleei autonomia eta ikasten ikasteko gaitasuna lantzen laguntzen die.

Egunkarian ez dituzte jardueren laburpen hutsak idatzi behar; aitzitik, proiektuan agertu diren gai kritikoak eta arazoak, sortu diren ideien eta egin dituzten aurkikuntzen gainean dituzten iritziak eta proiektuaren eta beren bizitzaren arteko erlazioari buruzko hausnarketak jaso behar dituzte.

Oso garrantzitsua da saioa edo jarduera amaitu ondoren minutu batzuk hartzea zer ikasi duten eta zer interes, zalantza eta zailtasun sortu zaizkien eta nola konpondu dituzten idazteko, adibidez.

Ikasleek beren burua behatzeko, kritikatzeko eta ebaluatzeko prozesuei buruzko informazio-iturri gisa eta gai hauei buruzko informazioa biltzeko erabil dezakete irakasleek egunkaria: ikasleen ikaskuntza-premiak, sortutako zailtasun eta arazoak, ikaskuntza-lorpenak eta ikasgelaren funtzionamendua, antolaketari dagokionez.

5. eranskina. Ikaskuntza-egunkaria.

3.9. TALDEAREN KOADERNOA

Taldearen koaderno (ikus 3. eranskina) taldeei antolatzen eta proiektuko jarduerak gauzatzeko jarraibideak ezartzen laguntzeko tresna bat da. Taldearen koadernoan gai hauek zehazten dira:

- **Taldearen izena** eta, nahi izanez gero, logotipoa.
- **Taldekideen** zerrenda.
- Taldearen **kontratua**, taldekideek konpromisoa sinatzeko.
- Taldeak kide bakoitzari egokituriko **zeregin** edo karguak, eta zeregin horien deskribapen zehatza.
- Taldeak adosturiko **funtzionamendu-arauak**; taldekide guztiek arau horiek betetzeko eta betearazteko konpromisoa hartzen dute.
- **Lan-plana**, proiektuko **jarduerak** eta taldekide bakoitzari dagozkion lanak jasotzen dituen.
- Idazkari-lanak egiten dituen taldekideak idatziz jaso behar du zer egin duten, zer zailtasun aurkitu dituzten eta jardueraren zer balorazio egin duten.
- Proiektua amaitu ondoren indarguneen eta ahulguneen gaineko **hausnarketa** egiten da.
- **Baterako ebaluazioa**, kide bakoitzak talde-lana ebaluatzeko.

3. eranskina. Taldearen koaderno

3.10. FASEAK ETA LAN-SORTAK

Lan-sortak gaiaren arabera multzokaturiko lanak eta jarduerak dira; lan eta jarduera horiek proiektuaren fase bakoitzean produktu eta emaitza partzial bat lortzeko balio dute.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko *Zure burua zaintzen duzu eta zaintzen zaituzte?* proiektua gauzatzeko lau fase proposatu ditugu.

Aurreko fasea, proiektua aurkezteko. *Antolatzea* izeneko lan-sorta bat du, taldeak antolatzeko eta planifikatzeko, arauak ezartzeko, zereginak banatzeko, lan-egutegia egiteko eta dokumentuak sortzeko: taldearen koaderno eta banakako ikaskuntza-egunkaria.

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Aurreko fasea	Antolatzea	Proiektua aurkeztea. Lau lantalde sortzea. Taldeetan zereginak banatzea. Arauak eta konpromisoak ezartzea. Egutegia. Dokumentuak.
SAIOA/EGUNA: 1.a		

Hasierako fasea, proiektua martxan jartzeko. Bi lan-sorta ditu: *informazio-txostena eta ezaupide-trukearen aurkezpena*. Talde bakoitzak bere informazio-txostena egingo du, ikerketa-lanean lortu duen informazioarekin; eta aurkezpenaren helburua lortutako informazioa gainerako taldeei azaltzea da.

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Hasierako fasea	Informazio-txostena	Dagokien lanbide-arloko laneko arriskuei buruzko informazioa bilatzea eta materiala ikertzea. Zer lortu behar dugu? Zer dakigu gai horretaz? Zer jakin behar dugu? Nola jakin dezakegu hori? Ikerketa osoa <i>Informazio-txostenean</i> biltzea. SAIOAK: 2.a, 3.a eta 4.a
	Ezaupideak trukatzea	Taldeei Hazi Arte bideo-sortak banatzea: 1. sorta.- Eskubideak eta Berdintasuna, justizia eta koherentzia. 2. sorta.- Betebeharrak eta Erantzukizuna eta talde-lana. 3. sorta.- Esku hartzen duten agenteak eta Jarrera kritikoa, askatasuna eta independentzia. 4. sorta.- Gizarte-eredua eta Errespetua, tolerantzia eta norbere zaintza. LSOOINen sorta: lanbide-arlo bakoitzeko bideo eta eskuliburu espezifikoak. Ikus-entzunezko materiala ikustea. Taldeek ikus-entzunezko sorta bakoitzeko gaiaren eta edukien gaineko ezaupideak aurkeztea eta trukatzea. SAIOAK: 5.a, 6.a eta 7.a

Fase honetan ikasleek argi eduki behar dute azken produktua (publizitate-iragarkia) egiteko ezinbestekoa dela lan-osasunari buruzko oinarritzko gaiak lantzea, lanean kalterik ez gertatze aldera arreta eta erantzukizuna sustatzeko. Halaber, asmoa da ikasleek lan-osasunaren arloko erakunde nagusien eskema egitea. Ikasleek oinarritzko kontzeptu hauek aztertu behar dituzte: osasuna, laneko arriskua, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa, osasun-kalteak (gaixotasuna, laneko istripua, atsekabea, nekea). Horretarako, LPO moduluko materiala erabil dezakete eta irakasleak lan-osasunaren eta gizarte-agenteen gainean ikertzea aholkaturiko web orriak kontsultatu ditzakete. Orobat, interesgarria da ikasleek gaixotasun profesionalak eta istripuak izan dituzten pertsonak elkarrizketatzea eta lantokietara, NOPLOIra eta sindikatu eta abarretara bisitak egitea. Hori guztia *Informazio-txostenean* jasoko dute. Gai hauek azpimarratzen dituzten jarduerekin ikastea ere interesgarria da:

- Arrisku-faktoreen, arriskuen eta kalteen arteko aldeak.
- Istripu eta gaixotasun arrunt eta profesionalen arteko aldeak.
- Arrisku-faktore psikosozialek zenbateko kalteak eragiten dituzten aditzera ematen duten berrien gainean eztabaidatzea; kalte horiei ez zaie merezi duten garrantzia ematen, laneko istripuen aldean ez direlako hain ikusgarriak.
- Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten estatuko eta erkidegoko erakunde publiko nagusiak zein diren eta zer zeregin dituzten zehaztea: LSOOIN, Laneko Ikuskatzailatza, autonomia-erkidegoetako erakundeak, gure kasuan NOPLOI.
- Garrantzi gehien duten erakundeak zein diren eta zer zeregin dituzten: mutualitateak eta laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuak.
- Beste gizarte-erakunde batzuk: sindikatuak.

Beste gizarte-erakunde batzuk: prebentzioko ordezkariak eta sindikatuak.

Ikus-entzunezko material lagungarria dago: *Hazi Arte* proiektuko zortzi bideo eta *LSOOINek* lanbide-arlo bakoitzerako egindako eskuliburu, kartel eta bideoak.

Ikasleek bideo guztien edukia landu dezaten, gure proposamena da lau bideo-sorta egitea eta talde bakoitzari sorta bana egokitzea:

1. sorta.- Eskubideak eta Berdintasuna, justizia eta koherentzia.
2. sorta.- Betebeharrak eta Erantzukizuna eta talde-lana.
3. sorta.- Esku hartzen duten agenteak eta Jarrera kritikoa, askatasuna eta independentzia.
4. sorta.- Gizarte-eredua eta Errespetua, tolerantzia eta norbere zaintza.

Informazioa bilatuz eta ikertuz osatu behar da eta gero gainerako taldeei aurkeztu behar zaie, bigarren lan-sortaren barruan; eduki horrek guztiak hurrengo fasea gauzatzeko balio behar du. Asmoa da bideoak eta ikertutako gaien buruzko informazioa bateratuz ikasleek aukera gehiago izatea iragarkia lan-osasunaren ikuspegi eta problematika anitzak aintzat hartuta egiteko.

Garapen-faseak hiru lan-sorta ditu, azken produktua egin ahal izateko. Lehen sortan *ikus-entzunezko gidoia*, gidoi grafikoa (storyboard), pertsonaiak, agertokiak eta abar zehazten dira. Bigarren sortan publizitate-iragarkia *produzitzen* da, hau da, grabatu egiten da. Eta azken lan-sortan *editatu*: muntatu eta amaitu.

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Garapen-fasea	Ikus-entzunezko gidoia egitea	Ideia nagusiez, aktoreen rolez, agertokiaz eta gidoi grafikoaz eztabaida egitea. SAIOA/EGUNA: 8.a, 9.a
	Iragarkia ekoiztea	Grabazioa, aktoreen eta zuzendariaren partaidetza, atrezzoak, raccorda, soinua, ekoizpena eta publizitate-iragarkirako logistika. SAIOA/EGUNA: 10.a, 11.a
	Publizitate-iragarkia editatzea	Eszenak aukeratzea, muntatzea, kredituak eta audioa. SAIOA/EGUNA: 12.a, 13.a

Azken fasea egindako materiala aurkeztea da. Talde bakoitzak bere azken produktua aurkeztu eta proiektua gauzatzeko faseetako prozesuaz hitz egingo du. Fase honetan, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuaren autoebaluazioa egin behar dute, egunkariak baliatuz; eta taldean egindako lana eta gainerako taldeen azken emaitza elkarrekin ebaluatu behar dituzte. Azkenik, proiektuaz hausnartu, balorazio orokorra egin eta proiektua hobetzeko aldaketak proposatu dituzte.

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Azken fasea	AZKEN aurkezpena	Azken produktua amaitzea eta entregatzea. Proiektua aurkeztea. SAIOA/EGUNA: 14.a, 15.a
	Ebaluazioa	Egindako lana elkarrekin ebaluatzea eta nork bere burua ebaluatzea. Hausnartzea eta proiektua baloratzea. Zabalkundea egitea eta amaitzea. SAIOA/EGUNA: 16.a

3.11.- PROZESUAREN ETA EMAITZAREN EBALUAZIOA

Proiekturako gida didaktiko honek proposatzen duen ebaluazioa (**hemen**) orientatzeko baino ez da, adibide edo iradokizun bat. Irakasleek tresna eta irizpideak taldearen ezaugarrien arabera egokitu ditzakete.

POEIn ikasleek gaitasunak zenbateraino eskuratu dituzten ebaluatzen da, hala ikaskuntza-prozesuan nola azken emaitzan, eta ikasleek, autoebaluazioarekin eta baterako ebaluazioarekin, eta irakasleek parte hartzen dute.

Prozesuaren ebaluazioa: % 65

Informazio-txostena % 25 (errubrika).

Ezaupide-trukearen aurkezpena % 20 (errubrika).

Ikaskuntza-egunkaria % 10 (autoebaluazioa % 5 eta irakaslearena % 5).

Taldearen koaderno % 10 (taldearen baterako ebaluazioaren errubrika).

Emaitzaren ebaluazioa: % 35

Bideoak % 25 (errubrika).

Azken aurkezpena %10 (errubrika).

4.

HEZKUNTZA-PLANA

Ikusi hemen plana

PROIEKTUAREN IZENBURUA

ZURE BURUA ZAINTZEN DUZU ETA ZAINTZEN ZAITUZTE?

AZKEN PRODUKTUA

Ikus-entzunezko materiala egitea, zehazki **laneko arriskuen prebentzioaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina** baterako **iragarki** bat, zeharkako balioak lantzen dituen.

IKASKUNTZAKO EMAITZAK/GAITASUNAK

- 1.- Lan-harremanetatik eratorritako eskubideak erabiltzen eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan eta hitzarmen kolektiboetan antzemateko gai da.
- 2.- Jardueraren arriskuak ebaluatzen ditu eta lan-eremuko lan-baldintza eta arrisku-faktoreak aztertzen ditu.
- 3.- Enpresa txiki batean arriskuak prebenitzeko plana egiten parte hartzen du eta esku hartzen duten agente guztien gaitasun eta erantzukizunak zehazten ditu.
- 4.- Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu eta (26 lanbide-arloren bati dagokion titulu espezifikoa)-ko teknikarien eta goi-mailako teknikarien laneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

TALDEAK

Taldearen izena eta taldeko kideak.

1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	4. TALDEA
1. kidea	1. kidea	1. kidea	1. kidea
2. kidea	2. kidea	2. kidea	2. kidea
3. kidea	3. kidea	3. kidea	3. kidea

TRESNAK ETA BALIABIDEAK

Gida didaktiko hau Google Drive plataformaren bitartez elkarlanean landu daiteke; izan ere, dokumentazio guztia horretarako dago prestatua. Beraz, ezinbestekoa da ikasgelan ordenagailuak edo tabletak eta Interneteko konexioa izatea. Ahozko aurkezpenetarako ekitaldi-aretoa erabil daiteke, edo ikasgelan proiektagailua erabil daiteke.

Proiektua egiteko aplikazio hauek izan daitezke beharrezkoak: Google Driven aplikazioak, Padlet, Trello, Youtube eta bideoak editatzeko programak.

IKT baliabideak: educ@con TIC, educaLAB, eduapps, INTEF, procomún.

FASEAK ETA LAN-SORTAK

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Aurreko fasea	Antolatzea	<p>Proiektua aurkeztea.</p> <p>Lau lantalde sortzea.</p> <p>Taldeetan zereginak banatzea.</p> <p>Arauek eta konpromisoak ezartzea.</p> <p>Egutegia.</p> <p>Dokumentuak.</p>
	SAIOA/EGUNA: 1.a	

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Hasierako fasea	Informazio-txostena	<p>Dagokien lanbide-arloko laneko arriskuei buruzko informazioa bilatzea eta materiala ikertzea.</p> <p>Zer lortu behar dugu? Zer dakigu gai horretaz? Zer jakin behar dugu? Nola jakin dezakegu hori?</p> <p>Ikerketa osoa Informazio-txostenean biltzea.</p> <p>SAIOAK: 2.a, 3.a eta 4.a</p>
	Ezaupideak trukatzeta	<p>Taldeei Hazi Arte bideo-sortak banatzea:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. sorta.- Eskubideak eta Berdintasuna, justizia eta koherentzia. 2. sorta.- Betebeharrak eta Erantzukizuna eta talde-lana. 3. sorta.- Esku hartzen duten agenteak eta Jarrera kritikoa, askatasuna eta independentzia. 4. sorta.- Gizarte-eredua eta Errespetua, tolerantzia eta norbere zaintza. <p>LSOOINen sorta: lanbide-arlo bakoitzeko bideo eta eskuliburu espezifikoak.</p> <p>Ikus-entzunezko materiala ikustea.</p> <p>Taldeen ikus-entzunezko sorta bakoitzeko gaiaren eta edukien gaineko ezaupideak aurkeztea eta trukatzeta.</p> <p>SAIOAK: 5.a, 6.a eta 7.a</p>

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Garapen-fasea	Ikus-entzunezko gidoia egitea	<p>Idea nagusiez, aktoreen rolez, agertokiak eta gidoi grafikoaz eztabaida egitea.</p> <p>SAIOA/EGUNA: 8.a, 9.a</p>
	Iragarkia ekoiztea	<p>Grabazioa, aktoreen eta zuzendariaren partaidetza, atrezzoak, raccorda, soinua, ekoizpena eta publizitate-iragarkirako logistika.</p> <p>SAIOA/EGUNA: 10.a, 11.a</p>
	Publizitate-iragarkia editatzea	<p>Azken produktua amaitzea eta entregatzea.</p> <p>Proiektua aurkeztea.</p> <p>SAIOA/EGUNA: 12.a, 13.a</p>

FASEA	LAN-SORTAK	JARDUERAK
Azken fasea	Azken aurkezpena	Azken produktua amaitzea eta entregatzea. Proiektua aurkeztea. SAIOA/EGUNA: 14.a, 15.a
	Ebaluazioa	Egindako lana elkarrekin ebaluatzea eta nork bere burua ebaluatzea. Hausnartzea eta proiektua baloratzea. Zabalkundea egitea eta amaitzea. SAIOA/EGUNA: 16.a

EBALUAZIOA

ZABALKUNDEA EGITEA

Proiektuari zabalkundea emateko, ekitaldi-lehiaketa bat antolatzea proposatzen da, azken produktu onenak saritzeko.

Gainera, ikastetxearen webgunean, sare sozialetan (Facebook, Twitter, Pinterest, Youtube) eta metodologia aktiboei dagozkien atari guztietan egingo da zabalkundea.

5.

PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Proiekturako gida didaktiko honetan proposatu den ebaluazioa orientatzeko baino ez da, adibide edo iradokizun bat. Irakasleek tresna eta irizpideak taldearen ezaugarrien arabera egokitu ditzakete.

5.1. EBALUATZEKO PROZEDURA

Ebaluazioa egiteko prozedurak askotarikoak dira: autoebaluazioa, baterako ebaluazioa eta eguneroko behaketa-lanak.

5.2. EBALUATZEKO TRESNAK

TRESNAK

Taula orokor bat planteatzen da ebaluazioa egiteko. Errubriketako bakoitzean lortutako emaitzak jasoko dira bertan, hain zuzen.

Errubriketako lehena **informazio-txostenarena** da. Irakasleek baino ez dute ebaluatzen. Nota osoaren % 25 balio du (100 puntutik 25). Beraz, errubrika honetako 32 puntuei nota osoan 25 puntu dagozkie. (Errubrikako puntuazioa x 25) : 32 = errubrika honetako puntu guztiak.

$$\frac{\text{Errubrikan lortutako puntuazioa} + \text{Portzentajezko pisua}}{\text{Gehienezko puntuazioa errubrikaren arabera}} = \frac{\text{E.n lortutako P. a} * 25}{32} =$$

Bigarrena **edukien aurkezpena** ebaluatzeke maila-eskala bat da, taldeen arteko baterako ebaluazioaren bidez, taldeen arteko edukien trukeari buruzko maila-eskala batekin. Talde bakoitzak edukia aurkeztu duen taldearen aurkezpena ebaluatzen du. Taldeek gehienez 120 puntu jaso ditzakete, nota osoaren % 20 izango liratekeenak (100 puntutik 20). Beraz, errubrika honetako 120 puntuei nota osoan 20 puntu dagozkie. (Errubrikako puntuazioa x 20) : 120 = errubrika honetako puntu guztiak.

$$\frac{\text{E.n lortutako P. a} * 20}{120} =$$

Hirugarrena **taldearen koadernoarena** da, talde bakoitzeko kideen baterako ebaluazioaren bidez. Nota osoaren % 10 balio du (100 puntutik 10). Lau taldeetako bakoitzeko kideen mende egongo da.

$$\frac{\text{E.n lortutako P.a} * 10}{11 * \text{pertsonea kopurua}} =$$

Laugarrena, **egunkari pertsonala**, bi ebaluaziotan zatituta dago. Batetik, ikasleen autoebaluazioa, nota osoaren % 5 balio duena (100 puntutik 5). Eta bestetik, irakaslearen ebaluazioa, nota osoaren % 5 balio duena. Irakasleak edonoiz eska dezake ikaskuntza-egunkaria eta aztertu.

Bosgarren tokian azken produktua dago, **bideoa**, nota osoaren % 25eko balioa duena (100 puntutik 25). Irakasleak ebaluatzen du. Beraz, errubrika honetako 32 puntuei nota osoan 25 puntu dagozkie. (Errubrikako puntuazioa x 25) : 32 = errubrika honetako puntu guztiak.

$$\frac{\text{E.n lortutako P.a} * 25}{32} =$$

Seigarren tokian, **azken aurkezpena** dago, nota osoaren % 10eko balioa duena (100 puntutik 10). Taldeek aurkezpena egin duen taldea ebaluatzen dute. Taldeek gehienez 120 puntu jaso ditzakete. Beraz, errubrika honetako 120 puntuei nota osoan 20 puntu dagozkie. (Errubrikako puntuazioa x 10) : 120 = errubrika honetako puntu guztiak.

$$\frac{\text{E.n lortutako P.a} * 10}{120} =$$

5.3. KALIFIKAZIO-SISTEMA

EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

TRESNAK

- Ikaskuntza-egunkaria
- Taldearen koaderno/txostena
- Errubrikak

6.

ERANSKINA

1. eranskina Hezkuntza-plana
2. eranskina Taldearen kontratua
3. eranskina Taldearen koaderno
4. eranskina Irudi-eskubideak
5. eranskina Ikaskuntza-egunkaria

6.1. EBALUAZIO-AGIRIAK

Dokumentuetako nomenklaturaren esanahia:

- I = Irakasleak ebaluatzen du.
- B = Ikasleen arteko baterako ebaluazioa.
- A = Ikasleek beren burua ebaluatzen dute (autoebaluazioa).

0 Ebaluazio orokorra

1I Informazio-txostena

2B Ezaupide-trukearen aurkezpena

3A Ikaskuntza-egunkaria

4B Taldearen koaderno

5I Azken produktua

6B Aurkezpena

6.2. IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA

Bideoa: Eskubideak

Bideoa: Betebeharrak

Bideoa: Esku hartzen duten agenteak

Bideoa: Gizarte-eredua

Bideoa: Berdintasuna, justizia eta koherentzia

Bideoa: Errespetua, tolerantzia eta norbere zaintza

Bideoa: Erantzukizuna eta talde-lana

Bideoa: Jarrera kritikoa, independentzia eta askatasuna

7.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua **NOPLOI**
- Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizateko Institutu Nazionala **LSOIN**
- **TodoFP**(MEC) prebentzioa. PRL_ceded_INTEF
- Hazi Arte proiektuko bideoa 2017: *To rent or not to rent*
Hazi Arte 2017- To rent or not to rent (making of)
- **POEI metodologiari** buruzko bideoak. Iruñeko Arte Eskola
- Errubrikak_ceded
- Talde-rolak: Belbin

